


GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA


38. zk. 1996ko otsaila

geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27



**Iturbe
anaiekin
hizketan**



Nandus:

hogei hilabeteko abentura

Floridako altxorra !

35



adaka

M

madinabeitia

altzariak • apaindurak

Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ



IKASTAROAK

2, 3 eta 5 ordu

Urrats guztiak

EGA, mintza eta
sakontze taldeak

Benetan (IKAS-TXIP)
Euskara ordenagailuz

MATRIKULA EPEA

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 9ra

INFORMAZIOA

Errege Katolikoak 15-C
Pintoreria 74
Zaldiaran enparantza 16

288922 tnoa.
289780 tnoa.
244905 tnoa.

* HABEren dirulaguntzaz antolatutak

Bi ekintzen berri

Zuzendaria:

JOSU KINTAS

Erredakzioburua:

XABIER ZABALETA

Erredakzio-batzordea:

LEIRE LOPEZ DE
ABERASTURI

SUSANA CALLEJA

ITZIAR MTZ. DE SANTOS

ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

LOREA ZURIMENDI

MIEL ANJEL ELUSTONDO

DAVID ALVEZ

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Maketazioa:

ALEX BADILLO

Itzultzailea:

INAXIO LOPEZ DE ARANA

Komikia:

IÑIGO SARASOLA

Marrakziak:

AITZIBER IRIONDO

Publizitatea:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

Argazkilariak:

EDORTA SANZ

LUKAS ETXEBERRIA

JOSEBA OLALDE

DAVID AGUILAR

JOSEBA UNZALU

Kolaboratzaileak:

TXIPI ORMAETXEA

JUAN JOSE KASTRESANA

IÑAKI GAUNA

TXABI ARNAL GIL

MIKEL GARMENDIA

KARLOS ETXENASIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E.

(ZUBILLAGA, OÑATI)



JOAN DEN abenduan bi gertakizun adierazgarriren lekuko izan da Gasteiz hiriburua. Langabezia eta eskudizio sozialaren aurkako Martxaren adar internazionala atera zen hilaren lehen Madrilerainoko tartea eginaz, egun berean, Estatuko leku desberdinetatik, beste bi adar ere atera ziren, hilaren 11n denak bat egiteko.

Abenduaren 29an ere kontzentrazioa burutu zen Legebiltzarraren aurrean 96ko aurrekontuak erabakitzeakotan zirela eta. Protestaldiko pankartak garbi adierazten zuen egitatearen zergatia: "Aurrekontu hauekin txiroak oraindik ere txiroago. Ondasunen banaketa".

Ekitaldi hauen nondik norakoak begi bistan daude, tamalez, egungo egoera sozialak gauza hauetaz hitzegitera eta mobilizatzeraz bultzatzen baikaitu. Ezin dugu ahanzi Hego Euskal Herrian 30.000 senditik gora direla egun halanola irauten dutenak batetik eta bestetik bideratzen zaizkien laguntzak direla medio.

Lanik ezaren ondorioz, pertsona ugari diru-sarrerarik gabe gelditu dira; beste askok, gazte eta emakumeak batik bat, lan sariturik izan ez dutenez, besteenganako babesera edo menpekotasunera egokitu behar izaten dute; lan eginda ere, badira, eta ez gutxi, pobre izatetik ateratzen ez direnak; ezin dira ahaztu bizi baliabiderik gabe aurkitzen diren hainbat errealitate pertsonal eta kolektibo: sendi monoparentalak, ama ezkongabeak, etorkinak, etnia minoritarioetako kideak... Hau guztia kontuan hartuta burutu dira aipatutako mobilizazioak.

Langabezia daudenak, lan fijoak dutenak, behin-behineko lanean ari direnak, gazte okupak, etorkinak... denok nahasian, apustu amankomunala egin dugu gizarte honetan nagusi den sistemak gauzatzeko dituen egoera antisozialen aurka.

Ekonomia neoliberalaren berezitasunetako bat giza taldeak, gazta zatiak bailiran, sailkatzea da. Gero, bakoitza bere sailkapen tokian kokatzen den heinean, elkarrekiko etendurak indartuko dira, eta ondorioz bapo zatikatutako gizarte eredu nagusitu zaigu. Aldi berean bere mezu propioa ondo errotzen saiatuko da: norberak egin dezala ahal duena.

Bide batez, joera korporatibista eta norberakeria eguneroko bizitza arruntari itsatsia doa, eta alkertasunez inoiz baino gehiago hitzegiten bada ere, benetako elkartasuna sal-

buespeneko fenomeno ari da gertatzen. Askatasunaz mintzo, baina besteak suntsitzeko prest nork berea lor ahal izateko; justiziaz mintzo, baina ondasunak kolektibizatzeke asmorik ez.

Eguzki printzak bailiran, Martxak zein kontzentrazioak, oihartzun handirik izan ez badute ere, eredu bezala erabiliak izatea merezi lukete. Egun, gizartean indarrean diren jokaera kutsakorrei aurre eginaz kaleratu dira, elkargunerako tartea hartu du tokia kalean. Ezetz oihukatuz erantzun diogu luzatu diguten segadari, gaztak, bere osotasunean, lortu behar baitu dagokion onura.

Nola konbentzitu herritarrak langabezia ez dela frakaso pertsonala, etorkina izatea ez dela delitua, etxekoandrea izateak ez duela suposatzen behar diru-sarrerarik ez izatea, aita edo ama langabezia egoteak ez liekela arazorik sortu behar seme-alabeei, ama ezkongabe batek bere askatasunaren jabe izan behar duela; eta nola konbentzitu herritarrak, edonork, dagoen egoera sozio-ekonomikoan dagoela, eskubidea duela bizi baldintza normal eta duina lantzeko.

Bizitzeko helburu amankomunak, borrokarako gune amankomunak, solasteko elkarguneak... dagoena banatuz, lan saritua ala ez, eta bereziki gizateriak oro har duen ondasuna.

Alberto Axpe
ESK-CUI Seko kidea

96ko euskaldunon aldizkaria

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

argitaratzailea:

GEU

6.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

GEU GASTEIZEK ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantzikizunak

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

ZKIA:

Pisua:

ihauteriak

MOZORROTZEKO aitzakiaren bat behar duenak, ihauterietan izango du bere gogoa errealtate bihurtzeko aukera paregabea. Izan ere, ihauterietan mozorroa izaten da protagonista. Eta horren ondorioz, jantzi eta tramankulu deigarriez hornituriko mozorrozale eta konpartsak egun horietan, Gasteizko kaleen (eta tabernen) jabe egiten dira. Batzuek mozorroturik eta besteek -mozorrotu gabe egonik ere-, jendearen itxura xelebreak eskainitako ikuskizunaz gozatuko dute.

Zer deritzozu ihauterietan mozorrotzeari?

Mozorrotuko al zara zu? Parte hartu duzu inoiz konpartsaren batean?

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu



M. CARMEN VADILLO
ileapaintzailea

- 1.- Oso ongi deritzot ihauterietan mozorrotzeari; bai umeak, baita helduak ere.
- 2.- Jakina baietz! Egia esan oraindik ez dakit zertaz mozorrotuko naizen, baina hotzik ez pasatzeko beroa ematen duen mozorroren bat aukeratuko dut.

Bertsoak

San Balentin eguna

EGILEA:

Oihane Perea

DOINUA:

Aizak hi mutil mainontzi!



Lasai egon!
Pazientzia izan!
Ez urduritu!
Ez larritu!
Oraindik ere ezin izan
dugu tirada handitu.
Lortu bezain laster
etxean izango duzu zure
aldizkaria!

Amodiozko gutuna
nahiz eta izan txukuna
gorputzak badu berez
hizkuntza
xamur ta leuna;
izerdia ta lurruna,
biluztu zaitez kuttuna,
desioaren jantzi apaina
baita maitasuna.

Romeo ta Julieta
biak elkarri fereka
esku jakintsu batzuetan dut
jarrita arreta.
San Balentin dela eta,
zertarako hainbat treta,
zurekin zerura igotzea
bada nire meta?
Begiak erdi itxita

eta ezpainak bustita
mugimenduak eta arnasa
estutzen hasita;
gure muxuen musika,
ta gorputzen erritmika.
egunsentia iritsi arte
daigun errepeka.

IRYSTA
poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ



IÑAKI SANZ
teknikoa



AITOR AMUTXASTEGI
laguntzailea



ANTXETA KNÖRR
ikaslea



ANGEL HERNANDEZ
MENDIGUREN
industriaria



NELI CALVO
MARIN
dendaria

1.- Nik ez dut oso gustokoa baina gero eta jende gehiago mozorrotzen da.
2.- Ez, ni egunero mozorrotzen naiz eta. Ez dut egun berezirik behar mozorrotzeko. Bestalde nahiago dut koadrilan ateratzea konpartsa batean baino.

1.- Primeran iruditzen zait jendea mozorroturik kalera ateratzea, ospakizun berezia da eta.
2.- Oraindik ez dut pentsatu, baina ziur naiz zer edo zer aurkituko dudala jazteko. Nire kasa edo koadrilarekin aterako naiz.

1.- Oso ondo, Ihauteriak horretarako daudelako. Normalean ez gara mozorrotzen eta honako hau aukera ona da.
2.- Urtero mozorrotzen gara, baina oraindik ez dugu erabaki aurten zertaz mozorrotuko garen. Hori bai, gure kabuz ibiltzen gara beti.

1.- Polita da jendea mozorrotuta ikustea, baina hori batez ere umeentzat, gazteentzat...
2.- Ez, ez naiz mozorrotuko. Ni Lizarrakoa naiz eta ez dut inoiz parte hartu konpartsen desfilean. Ikusi bai, baina besterik ez.

1.- Baietz espero dut. Koadrilakook gai bereziren baten inguruan aukeratzen dugu mozorroa (mitologia, frutak...), eta elkarrekin aterako gara.
2.- Jakina! Nire ustez, konparsetan ateratzen direnak besteak baino gehiago bizitzen dituzte ihauteriak.

txapelketa

ARABA gure lurra

Zinema edo futbolerako sarrerak irabaz ditzazkezue



Arabako zein herriren izena da euskaraz Getaria?

“Inplokas” edari goxoa zein herritan dazta genezake?

Aurtengo denboraldian, zein da Alaveseko “pitxitxia”?

URTARRILEKO ERANTZUNAK

1. Nola dute izena Gasteizko aireportu zaharreko lur-sailek? **SALBURUA**
2. Zein herritan jaio zen Francisco Galdos txirrindularia? **LASARTEN**
3. Zein Bailaratan daude Lahoz eta Lalastra herriak? **BALDEREJOKO BAILARAN**

Urtarrileko irabazleak:
Oscar Santos Martin

postariak ekarria

gurutzegramak askatu

DENBORAPASAZALEA

naiz. Denborapasazale amorratua. Ez dut esan nahi denbora nola pasatzen den ikusteak zaletu nuenik, baizik eta gurutzegramak, hitz gezidun, abaraska... eta horrelakoek txoratu egiten nautela eta zoratu ere bai askotan.

Hori dela eta, Geu Gasteiz gustora jasotzen dut, bai baitakit gurutzegramaren bat beti izaten duela. Gainontzekoa interesgarritzat jotzen dudana arren, niretzat Geu Gasteiz bereziki gurutzegramak hori izaten da. Normalki ariketa moeta hau errazenetik hasi nahi izaten dut eta urtarrileko alean hori egin nahi nuen “lehenengoa”, “oxigenoa” edo “sufrea” zioen lekuaren bila eta hara! Zeharretara bederatzigarren lerroan

“oxigenoa” aurkitu nuen baina nire kakalarria hitz horrentzat sei laukitxo zeudela ikustean etorri zen. Berehala konturatu nintzen gaizki zegoela baina Geu Gasteizkoak oso maite ditudanez ez nuen erabat sinestu nahi. Beraz, hasieratik hasi nintzen eta hobe hasi ez banintz. Lehenengo lerroan hitz bakarrarentzat zegoen lekua eta jarri beharrekoak aldiz bi ziren. Etsita bertan behera utzi nuen gurutzegramak. Ez zen lehen aldia, hiru aldiz gertatu zitzaidan aurrez zuen (gure) aldizkari honekin.

Botereari edo EAJri errua botatzearen zale banaiz ere ez dakit oraingoan egokia ote den eta gurutzegramak gaixoei bat eginik hau soilik esan dezaket: Ni ere gurutzegramak bat naiz.

Asier Iriondo

Izazkun Arrue:

"etxean hamaika haurri irakatsi nion a, e, i, o, u euskeraz"



tartetxo honetara euskararen alde hainbeste lan egin duen emakume baten berri dakarkizugu ale honetan. Izazkun Arrue izena baliteke askorentzat ezezaguna izatea, nahiz eta bera izan zen Gasteizko ikastolen hastapenetan euskara irakasten aritu zen andereñoetariko bat.

INORK GUTXIK badaki ere, Errepublikara garaian, euskaltzale batzuek ikastola bat ireki zuten Zapateria kalean. Ilunabarrekin batera, zenbait gasteiztar bertara hurbiltzen ziren dantzak, euskara edota antzerkia ikasteko asmoz. Baina, kimu hori inausi egin zuten ernatu berritan. Izan ere Franco boterera iristearekin batera,

ikastola itxi eta Pilar Landaburu y Fernandez de Betoño andereñoa gartzelara eramane baitzuten.

Zapateria kaleko ikastola zaharrak utzitako hutsunea bete nahirik, Gasteizen ikastolak antolatzeari ekin zion berriro 60ko hamarkadan, guraso gasteiztar batzuen ausardiari esker. Beren seme-alabek

euskara ikastea nahi zuten guraso horiek eta, asmo hori gauzatzeko, Izazkun Arrue-rengana jo zuten. Egun jubilatua dagoen Gateizko andereñoak horrela ekarri du gogora gertakari hori: "Nola esango nien ezetz guraso haiei? Nire baiezkoa jaso bezain laster, umeak ekarri zizkidaten, eta, berehala hasi ginen eskolak ematen. Orduko ikastola Cercas Bajas kalean zegoen,

geu gasteiz
aldizkaria

**PUBLIZITATEA
TARIFAK**

zure publizitatea...
euskeraz

Barruko orrialdeak orrialde
osoa

18 modulo: (3 x 6) 30.000 pta.

orrialde erdia
9 modulo: (3 x 3) 15.000 pta.

Bestelako moduloak

modulo 1: (1 x 1) 2.000 pta.

2 modulo:
(2 x 1 edo 1 x 2) 5.000 pta.

3 modulo:
(3 x 1 edo 1 x 3) 5.000 pta.

4 modulo: (2 x 2) 7.000 pta.

6 modulo: (3 x 2) 10.000 pta.

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

berrikoia

nire etxean bertan, hain zuzen ere. Han, hamahiru haurri irakatsi nien a, e, i, o, u euskeraz". Ikastola hori 1963an hasi zen martxan. Hiru urte beranduago Izaskun eta bere ikasleek handik alde egin behar izan zuten, tolosarraren etxea txiki xamartua baitzen ordurako. Hiru urte horietan ikasle kopurua bikoiztu egin zen. Hura gogoratzean orduko garaiek utzi dioten zoriontasun zantzua ezin du izkutatu Izaskun Arruek; bere begien dirak salatzen du, gupidarik gabe.

Euskararen alde lan egiten zutenentzat ez zen garai atsegina hura. Ikuskatzaileen bisitak, komisaldegira joan-etorriak..., hitz batean, trabak nonahi. Ikastolak bazeuden, egon ere, baina ez ziren legezkoak. Izaskunek hauxe azaldu digu: "Gure ikastola legez kanpokoak zenez, umeak eskola batean matrikulatu behar izan genituen. Hainbat eskolataro zuzendariak ateak itxi zitziguten, ez, ordea, Adurtzako eta Samaniegoko eskolakoei. Horiei esker, haurrak matrikulatu ahal izan genituen. Hainbat Adurtzan eta neska Samaniegoko. Oraindik gogoratzen ditu Izaskunek Samaniego eskolako zuzendaria zen Maria Angelesen hitzak: "Zuek hizkuntza bat duzue eta hori zaindu beharra daukazue". Oroitzapen horrek andereño ohia hunkitu zuen nonbait, eta kitatu ezinezko zorra bihotzean gordeko bailuen, hau aitortu digu: "Beti eskertuko diot hori".

Leku arazoa behin-betiko konpontzeko asmoz, 70eko hamarkadaren hasieran, Izaskun Arrueren lanari esker, Olabide ikastola sortu zen eta 1974-1975 ikasturterako, 500 neska-mutilek izena eman zuten bertan. Izaskun, dudarik ez, harro dago bere ahalegina ez dela alferrikakoa izan oihartu delako. Gu, gasteiztarrok, Izaskuni eskerrak eman beharrean gaude, euskararen, ikastolen eta Arabako euskalgintzaren mesedetan egin duen egundoko lanagatik. Mila esker, Izaskun!

I. Dz. de Mendibil/X. Zabaleta



BAT

Neuk irakurria: "Gasteizen bertsolariak plazara". Aurrez ez nekien ezer eta lehen irakurketan zuzena iruditu zitzaidan. Gero, ordea, bi huts edo hutserdi ote ziren iruditu zitzaidan. Lehena txikiena; Printzipal Antzokia al da Gasteizko "plaza" hori? Horrekin ez dut esan nahi bertsolariak hain toki bitxia merezi ez dutenik, gutxiagorik ere, baita dotoreagoak ere. Dena den, nire burmuinetan halako "txokea" piztu zen, ez baintuen "antzokia" eta "plaza" berdintzat jotzen. Esan behar nuen eta... Amen!

Bigarren hutserdiak, ordea, zartada handixeagoa eman zidan:

Bertso saioa Gasteizen eta Arabar bertsolariak fala zerrendan! (Zerrenda ederra zela aitortzen dut). Berrito ere, hainbeste kostata bertsolari izatera iritsi diren gure herrikideek diskriminatuak direla esan beharko dute... eta non eta etxean.

Geu Gasteiz-eko lagunei, hirugarren urteurren honetan, zorionak eta animoak eman eta laguntza eskaintzeaz gain, Araban Bertsolari Elkarte bat eta Gas-

teizen Bertso Eskola bat badirela eta lanean dihardutela jakinarazi nahi diet eta zerrendak osatu eta saioak antolatzean beraiekin harremanetan jartzea egokia iruditzen zait.

BI

Bigarren hau, urrezko pintzelada dela aitortu beharrean nauzue. Aurreko "Geu Gasteiz" aldizkarian ere zerbait azaltzen digute eta kartel berezi batzuetan ere irakurri ahal izan dut, Euskalerrian Euskaraz-ko lagunak burutu duten lan eredugarria: hilabete batzuren gorabeheran, bi mila kale izen edo seinale "euskaraz" jartzea lortu dutela... Jau-nak, 2.000! Non eta Gasteizen baka-rrik! Eta oraindik hasiera bakarrik omen da.

Animo eta aurrera lagunok! Eta ahaztu baino lehen, mila esker Bertso Eskolara ekarri zeniguten informazioagatik.

Besteok badugu zer eta non ikasi. Besterik gabe eta berrito, zorionak aldizkari euskaldun hau sortu eta hiru urtez bizirik mantentzea lortu eta aurretzean lortzen jarraitzen duzun guztioi. Eskerrik asko!

Abel Enbeita

JANTZI ETA OPARIAK

Kutxilleria, 40
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



Peru 8
22 60 50

Jose Mardones 8
26 35 40

Arana 30
25 24 00



Euskal Herria
jatorrizko bertsioan!

anima
zaiter

dekⁿ

«POZIK BIZITZEKO BARRE ASKO EGIN BEHAR DA»

Estibalitz Larrañaga

□ Estibalitz Larrañaga Etxeberria dugu bera, Bergaran sortua. Izen ohizkoa da "Estibalitz" Gasteizen, baina ez da horrelakorik Bergaran. <Amapontekoak, hark aukeratu zuen. Estibalitz edo Dorleta>. Eskoriatza zein Gatzagatik bertara da Dorleta. Haatik, Estibalitz. <Nire garaian, urte pila batean, Estibalitz gutxi ginen: beste bat eta biok>.

□ Noiz jaioa: <1.956ko maiatzaren 28an. Berrogei urte! Aiii!>. Geminis da. <Nortasun bikoak garela esaten dute baina nik ez zekiat bada!>.

□ Hamahiru urte darama Gasteizen, senarrarekin; Antzuolakoa du. Ezkondu eta gero etorri ziren. <Orain hamahiru urte. Umeek hiru urte t'erdi zeukaten. Ezkondu eta Bergaran jarri ginen; gero joan ginen Antzuolara, bizitzen>. Gasteizen zuen ahizpa zaharrena Estibalizek eta, halako batean, hona aldatu ziren.

□ Fotografia-denda dute Adurtzan, "Erramun", Heraclio Fournier, 23an. Dendan egiten du lan. <Dendaria eta fotografo naiz. Ikaragarri gustatzen zait>.

□ Oporretara joatea du maite. <Bidaiatzea. Ezin dut askotan joan, baina

gustatzen zait. Eta mendira irtetea ere bai>. Ahal duenean abiatzen da batera zein bestera. <Europar... Alemania, Polonia, Txekoslovakia, Hungaria, Frantzia, Grezia -ez zitzaidan batere gustatu, dena oso puskatuta ikusi nuen eta Atenas bera ere, zabortegia iruditu zitzaidan. Baina ondo pasatzen da oporretan!>. Mexikora zein Hego-Ameriketara joango litzateke. <Oso aberasgarri da. Deskonektatzeko ere egiten duzu -urte gutzia lanean eta-, baina aberasgarri da. EEBBak ere egingo nuke kosta batetik beste kostara, baina dirua falta!>.

Duzun biziorik handiena?

Bidaiatzea baina, dirua falta.

Eta bertutea?

Hori besteez esan beharko dute.

Zer eskatzen diozu bizitzari?

Horiek dituk galderak!

Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria ala Vitoria-Gasteiz?

Gasteiz.

Jeniorik bai al duzu?

Pittin bat bai.

Zein duzu momentuko kezkarik handiena?

Lana.

GEU GASTEIZ aldzikaria ezagutzen zenuen?

Bai, bai. Etortzen zait dendara eta irakurtzen dut. Fenomeno iruditzen zait horrelako gauzak Gasteizen.

Norekin hitzeging liteke euskaraz Adurtzan?

Oraindik jende gehienak erdaraz egiten du baina etortzen zait jendea euskaraz, gazteak. Auzoan, gainera, unibertsitatea eta, jende gaztea badago eta horiek ekarriko dute poliki-poliki. Bestela...

Egunkariren bat?

Nik Egin hartzen dut. Noiz edo noiz El Mundo ere bai, "País", baina normalean Egin...

Telebista programarik?

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Tokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrunbainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarkean iharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...

K2
KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO
 C/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFO: 545/23 05 34
 01005 VITORIA-GASTEIZ

"El Tercer Milenio". Asko gustatzen zait. Ez dela denbora asko bota zuten Chiapasko prolema eta abade hori egon zen, Adolfo Izal, eta oso interesgarria izan zen.

Pelikula onen bat?

Oraintxe denbora asko ez, ikusi nuen -bigarren aldiz-, "La caja de música".

Gustoko aktore/ aktorearen bat?

Meryl Streep. Eta aktore, Robert de Niro.

Nor da sukaldari zuenean?

Ramon! Senarra.

Etxeko lanak nork?

Denok egiten dugu, bai senarrak, bi semeek, neuk...

Jatun ona zara?

Bai, ona, eta denetatik gustatzen zait eta ugari.

Menu goxo bat?

E. Barazki menestra, bakailaua saltsa berdean eta postrea... gozoak eta ez zaizkit gustatzen eta gazta jango nuke.

Bazkalondoan lokaputsa?

Ez.

Igande goizeko plana?

Mendira.

Libururen bat?

Orain urte asko irakurri nuen eta berriro irakurtzen nabil: "La orquesta roja". Bigarren Mundu Gerra, naziak, espionaje sarea... intrigazkoa, oso polita. Beste bat, Isabel Allenderena, "La casa de los espíritus".

Zuen etxetik ehun metrora harrapatu zuten ETako Araba komandoa...

Eta nik ezta jakin ere! Dendan ez dut irratia pizten eta eguerdian jakin nuen, azokan. Han zebiltzan andreak eta kristoren nahastea. "Zer da?",

eta "Ez al duzu jakin? ETako komando bat!". "Tira!", neuk. Telebista piztu nuen gero eta hantxe jakin nuen. Uste dut izan zela... goizeko seietan eta a zer nolako show-a!

Azkenaldian oso modan daude ertzainak Gasteizen...

Ez dakit nola konponduko den hau. Probokazioa alde bietatik ikusten dut. Gazteak dabilta kalean, Parte Zaharrean eta, eta zer egingo dute gauean? Gure mutilak ikusten ditut nik. Oraindik ez dira hasi irteten baina orain aste bi irteten ziren. Joango dira Parte Zaharrera, bokadiloa jan eta... Han azaltzen badira "eurak" ere, zertara hara gauean? Laga egiozue gazteak bakean. Prolema zaila da, oso.

Politiko ideala?

Hau ez dago arreglatzerik motel... martxa honetan! Dena dago hain apurtuta!

Erretrato ona egiteko sekretua?

Lehenengo, erretratoak ateratzea gustatu behar zaizu. Gero, material ona: makina ona, negatibo handia... Argia da inportantea. Faktore asko daude. Erretratoa ateratzeko, pertsona bati adibidez, konektatu egin behar duzu pertsona horrekin, girotu.

Beti besteri erretrato ateratzen ari zarete. Nork ateratzen dizkizue zeuei?

Egia da. Geure erretrato gutxi ateratzen dugu: nortasun txartelarenak edo pasaportearenak ez badira... Senarrak niri, nik senarrari.

Niri gustatzen zait besteri ateratzea, baina bestek niri ateratzea, ez.

Zein da pozik bizitzeko sekretua?

Norberaren izakerak zerikusi handia du. Barre asko egin behar da, nork bere lepotik ere bai. Bestela, trauma bat litzateke. Mundua -Euskal Herria ezezik-, zapuztuta dago. Barre asko egin behar da. Entzunda daukat barre asko egiten dutenak urte asko irauten dutela.

Dendatik atera eta zein duzu programa?

Etxera, afaldu, umeekin egon ohera joan baino lehenago, eta gero, irakurri. Ipintzen dut telebista eta programa on bat ez badago, zapping eginez egoten naiz eta gero, isil-isil jartzen dut telebista, eta irakurtzen hasten naiz.

Umeak hazi, nekeak bizi?

Ezta pentsatu ere. Iruditzen zait azkarregi hazi direla. Txikitan, lana eragiten dute, baina barrez hasten direla eta, gozamina da. Garaiak dira. Orain ere, hamabost urte

dituztela, handi egin direla iruditzen zait, badoazela. Nekeak bizi? Ez, ez.

Hiri-erdia txukun ei dago, jarlekuak, arbolak, monumentuak, oinezkoen esparruak eta beste. Auzoak ere horrela zaintzen al dituzte?

Uste dut ezetz. Gasteiz oso polit dabilta lagatzen. Hiri-erdia, kanpoko jendea gehiago joaten delako bertara eta, gehiago zaintzen dute. Auzoak beti baztertuta daude. Gogoan dut Fournierreko espaloiak jaso zituztela, gasa sartzeko, eta esaten genuen: "Ene! Ba! Orain ipiniko digute hau behar bezala, baldosa edo...". Baldosa? Etorri zen makina hori eta bota zuen galipota eta aurrera! Espaloi zabala daukagu eta zer egingo dugu bada! Jendea ere isilik egoten gara eta...

Zurekin asmatzeko erregalao?

Jesus! Edozer gauzak emango lidake poza! Detailea bera asko da.

Miel Anjel Elustondo



HegoAmerikako
jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

*Karta betiko eta oraingo
platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pta
Betiko kazuelatxoak*

Fredi Martin:

“Gure hizkuntz eskubideak defen

enplegu bulegoarekin (INEM) harremanak euskaraz egin nahi izateagatik, Fredi Martin gasteiztar euskalduna langabezia saria jaso gabe geratu zen 1994ko azaroan. Bere eskubideak defendatzeko auzitegietara jo behar izan zuen eta, oraindik orain, epaiaren zain dago.

GERTAERAK 1994KO AZAROAN hasi ziren, Martinek INEMeko bulegora joateko gaztelaniazko idatzia jaso zuenean. Gazteak, bere hizkuntz eskubideak zapalduak zirela eta, erantzun zuen jakinarazpena edo zitazioa elebitan jaso behar zuela bulegoan agertzeko.

Orduantxe hasi ziren Martinen buruhausteak. Ustez eskaera arrunta eta erraza zena, izugarri korapilatu zen. “Ez nuen uste horrenbesteko mobida sortuko zenik. Gobernu Zibilak berak, horrela eskatuz gero, euskaraz bidaltzen ditu bere idazkiak. INEMek hainbeste oztopo eta traba jartzea ez nuen inondik espero”. Enplegu institutuak ez zuen ontzat hartu gazteak egindako

eskaria eta honen aurkako prozedurari ekin zion, <<bere garaian bulegoan agertu ez zelako>>. “Nik ez nuen inolako arazorik beraiek eskatutako guztia bertara eraman eta aurkezteko, baina behin eta berriz idazki guztiak gaztelara hutsean bidaltzen zizkidaten”.

Erreklamazio ugari eta buelta asko eman ondoren, lau hilabeteren buruan, Lanpostu Institututu Nazionalak aitortu egin zion

gazteari bi aldean arteko harremana euskaraz burutzeko eskubidea bazegoela. Denbora horretan guztian, ordea, langabezia saririk jaso gabe egon zen Martin: “Oso gazki pasatu nuen, nire diru iturri bakarra 45.000 pezeta horiek ziren eta. Diru kopuru horrekin bizitzea dagoeneko gogorra zen eta hori gabe esango didazu...”



azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

**Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu**

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

MIKO
izozkiak

datu behar ditugu”

Harremanak euskaraz izatea onartu izanak, hala ere, ez zituen gauzak gehiegi erraztu. Izan ere, INEMen langile euskaldun bakarra topatu zuen, eta, gainera, ez zen Martinen kasuaz arduratzeko modukoa, beste sail batekoa izan nonbait. Gai-nontzeko langileen jarrera ez zen batere ona izan. “Errespetu falta eta iseka egiten zidatela nabaritu nuen. “Hara, bazetorrek berriz ere’ esan eta erdi txantetan hartzen zituzten nire eskaera guztiak”.

Epaitegira bidea

Harremanak euskaraz izatea onartu ziotenean, zor ziotena kobratzen hasi zen, baina lehenengo hilabetekoa ez zioten ordaindu nahi bere garaian bulegoan agertu ez zelako. Azkenean Martinek epaitegietako bidea hartzea deliberatu zuen. “Ofizioko abokatu euskaldun bat eskatu nuen baina ez zidaten bermatzen niri zegokidan abokatua euskalduna izango zenik. Euskaraz zekien abokaturik bazegoen baina zerrendan lehena zegoeonari emango omen zioten nire kasua. Azkenean abokatu partikular batengana joan behar izan nuen”.

Epaiketa iazko urriaren 27an egin zen, baina oraindik ez du epairik jaso. “Azken batean aztertzen ari direna zera da: estatuko administrazioak bidalitako idatziak euskaraz jasotzeko eskubidea dugun ala ez. Hori da asuntua. Tartean diruaren arazoa ere badago baina bestea garrantzitsuagoa da. Gure ustez, argi eta garbi dago arrazoa

dugula baina ez dute legea bete nahi.”

Fredi Mrtinen kasuak gai honen gaineko lehen epaia ekarriko du eta, epai horrek, ordutik aurrera bidea errezagoa egin lezake. “Epaia aldekoa ateratzen bada, nahikoa izango da jakinarazpena euskaraz jaso nahi duzula eskatzea, bi aldeen arteko harremana euskaraz izateko”.

Honek guztiak zerbeitetarako balio izan dion eta hainbesteko ahalegina egitea merezi ote duen galdetu diogu: “Zerbait behintzat badakit: oso buru gogorra naizela. INEMekoek bidalitako erantzunak, guztiak gaztelera hutsez, erabat lotsagarriak ziren, irainak baino ez ziren: estatuaren eta estatuko administrazioaren hizkuntza gaztelera dela..., ez dakit nik zenbat astakeria esaten zituzten. Horrelako erantzunen aurrean, zuk bortitzago erantzutera behartzen dizute.

Dena den jendea animatu nahi nuke, nork bere eskubideak erabili eta bete daitezela eskatzeko. Tamalez, agintari eta erakunde-etatik bide horretan ezer gutxi egiten denez, herritarrok egin beharko dugu ahalegina horrelako gauzak aurrera ateratzea nahi badugu”.

Horretan utzi genuen Martinekin izandako solasaldia. Gaur egun, epaiaren zain dagoen bitartean badu denbora non igaro. Urte hasieran Kutxa kalean dagoen Elizal-



“**‘Hara, bazetorrek berriz ere’ esan eta erdi txantetan hartzen zituzten nire eskaera guztiak**”

de taberna hartu zuen lagun batekin batera eta bertan ari da lanean. Hara joan eta gaztelera eskatzen badiozue kontuz, ordea! Behar bada zurekin harremana euskaraz izatea nahi duela erantzungo dizu eta.



J A T E T X E A



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

Abetxuko eta kitto uhinen artera itzultzear

denbora gutxi barru, Abetxukok iraganean edukitako irrati librea airean izango da berriro ere. Hasiera batean, 'Abetxuko eta kitto' irratiak otsaila honetan bertan emititzen hasi nahi du, egoitza berriaren konponketa lanek atzeratzera behartzen ez badute behintzat.



HIRU URTE LUZE isilean eman eta gero, 'Abetxuko eta kitto' irrati libreak emititzeari berrekin nahi dio hilabete honetan bertan. Irratiak, oraingoan, auzoan eratu berri den Ekimen Etxean izango du bere egoitza, hantxe beste hainbat ekimen burutuko diren lekuan.

Irratia berpizteko ideia aspalditik dator, 1992.eko amaiera aldean 'Abetxuko eta

kitto'-k eraso faszistak eta gainontzeko arazoak zirela eta, bere ateak itxi behar izan zuenetik, hain zuzen ere. "Faszistek erasotu gintuztenean irratiaren kokapena aldatu nahi izan genuen segurtasun

“ hiru urte hauetan zehar beti egon da irratia berriro martxan jartzeko asmoa ”

haundiagoren bila eta Auzoko Elkarteko lokaletara joatea pentsatu genuen, baina irratiaren parte hartzen genuenon nekea ere zela medio, azkenean geldiunea luzatuz joan zen" azaltzen du Auzoko Elkarteko burua den Paquita San Bartolomé. Jarraian, hiru urte hauetan zehar beti ere irratia berriro martxan jartzeko asmoa gogoan izan dutela zehazten du: "Itxi behar izan genuenetik

axular
LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Ederki

argazki estudioa

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN

Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak

Estudioko argazkiak

Bideo industriala

Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

gogobiziz pentsatu dugu irratiaeren berreskurapenean”.

Kalitate handiagoko proiektu beretsua

Aro berri honetako ‘Abetxuko eta kitto’ aurrekoaren ildo beretik abiatuko da “kalitate handiagokoa izango bada ere”. Azken finean, orduan egindakoa eta lortutako esperientzia baliogarria izango zaigu oraingoan”. Era honetan, emisora berria auzoko ahots bilakatuko da. Bertan, programaren bat egiteko proiektua daukatenez beren tokia aurkituko dute eta zer edo zer esan nahi duenak ere aukera ugari izango du telefonoz hainbat irratsaitotan.

Programazioaren eskema aurreko garaian egindakoaren antzekoa izango da. Besteak beste, programa dibertigarriak, serioak, informatiboak, kulturalak... izango dute lekua programazioan; “edozein gai eta jarrerak beren txokoa izango dute ‘Abetxuko eta kitto’-n, irati hau ‘librea’ baita hitzaren zentzu zabalenean”. Berrikuntza nagusiaren artean irati-antzerkia aipa daiteke; saio honekin eta zinemari buruzko programarekin batera, jende zahar askoren arreta bereganatzen saiatuko dira.

Ekimen Etxea, hiritarrentzako esparru berria

Esan bezala, irati librearen egoitza Abetxukon ireki berri den Ekimen Etxea izango da. Bertan, Abetxukoarrek proposatuta bidezkoa den edozein ekimen gauzatu ahal izango dute, teoriarik behintzat. Momentuz, egurra eta nekazaritza ekologikoaren tailerrak antolatu dira irratiaz gain, eta hurrengo hilabeteetan askoz ere gehiago izango direlakoan dago Paquita.

Ekimen Etxea hutsik geratu den eskola publiko bat da. Aurreko urtean udaleko

governu taldeko EAJ-PNV eta, batez ere, PSE-EErekin harreman ugari izan zituzten lekuaren arazoari irtenbide bate mateko. Azken batean, akordio batera iritsi ziren bi aldeak. Era honetan, iratiak aurreko aldian legearekin izandako arazoak oraingoan ez direla errepikatuko uste dute Abetxukoko hiritarrek.

Une honetan, ‘Abetxuko eta kitto’ iratiak daukan arazorik handiena teknikarien gabezia da. “Orain arte, lagundu nahi izan gaituzten pertsonen menpe egon gara. Lagun hauek mesede handiak egin dizkigute behin baino gehiagotan baina funtzionamendu egokia lortu nahi izanez gero, teknikoki ere independenteak izan behar dugu”.

Auzo analfabetoaren labela betirako alden du

Abetxukori buruz mintzatzerakoan, Paquita San Bartolomé-k auzoak azkenengo urteotan erakutsi duen aurrera egiteko ahalmena azpimarkatzen du ezaugarri nagusitzat. “Oraindik ere ‘Auzo

“irradiak aurreko aldian legearekin izandako arazoak oraingoan ez direla errepikatuko uste dute”

analfabetoa’ izendapenarekin zigortzen gaituzte, baina hau ez da egia. Orain berrogei bat urte etorritako emigranteon artean bazegoen hainbat eskolagabe, nolahi ere denbora honetan egoera zeharo aldatu da helduek beren heziketarako egindako ahaleginei esker”, eta une honetan inizatiba handiko auzoa izatearen ospea egokiagoa litzateke. Paquitak esango zukeen moduan, marginazioan itota ez hiltzeko etenik gabe mugitu behar izan dute, azkenean marginazioa gailendu ahal izan dutelarik.

Edu Lopez de Luzuriaga



HEGOALDE
euskaltegia



Jose Lejarreta,
9 behea

tfnoa 28 41 96

**01005
GASTEIZ**



Ardatz

itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

Berdantzaki:

XX. mendeko euskal dantza



“e

uskal dantza

klasikoa oso-oso aberatsa da, baina zergatik geratu behar dugu jadanik asmatuta dagoenarekin bakarrik?”. Hori izan da Berdantzaki dantza taldearen abiapuntua ‘Gure aitaren etxea’ lana egiteko orduan. Berdantzaki talde gasteiztarra euskal dantza klasikoa berritzeko asmoarekin sortu zen eta lortzen ari dela dirudi.

‘NIRE AITAREN ETXEA’-ren helburua “lan homogeneous egitea eta mezu bat zabaltzea” izan da, hala esan digu bere egileak. Ez nolanahiko lana, euskal dantza klasikoan oinarrituta elementu berriak sartzen duen lana baizik: “Euskal dantza tradizionala oso aberatsa da dudarik gabe, baina guk ez genituen jadanik asmatuta dauden dantzak egin nahi. Egin dugun lana elementu tradizionaletan oinarritzen da, baina beste elementu batzuk ere sartu ditugu: balleta, dantza klasikoa eta espainola, antzerkia... Musika ere gaur egungoa

da, jantziak ere ez dira ohikoak. Horrela gure dantza aberastu egiten dela uste dugu eta gurean oinarrituta zerbait berria sortzen da”.

Berdantzaki taldeko kideak dantza taldeetan hezi dira eta talde hauen lana ezinbestekotzak jotzen duten arren “normalean egin duten lana aintzinako dantzak jaso eta horiek aurkeztea izan

“**ohiko elementuetan oinarrituz elementu berriak sartu nahi izan ditugu**”



giro atsegina eta lasaia

espezialitatea: etxeko pintxoak

1993ko txapelduna • 1994ko azpitxapelduna

ERRIOXAKO ARDORIK HOBERENAK EZAGUTZEKO AUKERA

ARKA 2 / DATO 27 • GASTEIZ



kafetegia
taberna

ALDAPA

SAN VICENTE
aldapa

GASTEIZ

da. Baina ez dugu zertan horretara mugatu behar, ezta?”.

Elementu berriak sartzen hasi eta berehala lehen kezka sortu zitzaion: lanari osotasuna ematea. “Hauxe lehendabiziko esperientzia zenez, laborategiko produktua aterako ote zitzaigun kezka bageneukan, baina nahiko lan homogeneoa geratu dela uste dugu, hala esan digute behintzat” baieztatzen dute. “Agian horrela esanda handikeriatan gabiltzala ematen du, baina XXI. mendean lan hau ikustean XX. mendean egiten zen euskal dantza zela esango dute”.

Gasteiztar hauena da dantza berritzeko egiten den lehen saiakera serioa

Berritu

Gasteiztar hauena da, hain zuzen, dantza berritzeko egiten den lehen saiakera serioa, aurretik hainbat arlotan aldaketa batzuk egin badira ere: “Jantziak berritu eta eskenografiako efektu batzuk egin izan dira, baina dantza-pausuak ez dira inoiz ikutu”.

Dantzan pausu eta elementu berriak sartzeaz gain mezu bat bota nahi zuten Berdantzakikoei, “eta bide batez dantza ekitaldi baten bitartez ere komunikatu daitezke frogatu. Dantzariak zuen guztia atera eta gero beste elementuez baliatzen ginen: balleta, antzerkia,...”. Gabriel Arestiren bertsoa “oso egokia zen guk esan nahi genuenerako: Euskal Herria, bere kultura eta izan ditugun eraginak,... Ez dugu irtenbiderik ematen, ezta gutxiagorik ere, baina egoera bat erakusten saiatzen gara”. Bertso horrek, gainera, lan osoan agertzen den oinarriak nagusien eman die: etxea, euskal kultura horren garrantzitsua den elementua.

Baina, nortzuk dira Berdantzakik? Dantza



Talde Klasikoetan oinarrituta berau zentzu guztietan berritu nahi duten hiru lagun. “Zentzu guztietan berritu antzerki konpainia baten moduan lan egin nahi dugulako”. Hau da, taldeak ez du dantzari kopuru finkoa izango, lan bakoitzean behararen arabera dantzariak hautatuko dituzte. “Oraingoan hamar dantzari egon dira, hortaz aparte musika idatzi diguna eta argiz-

tapen arduraduna; baina hurrengo lanean bost pertsona bakarrik behar baditugu, bost aukeratuko ditugu. Eta, behar bada, ez dira oraingo berak izango. Ikusiko da.”

Behin bidea eginda hurrengo pausuak errazagoak izaten direla eta, bigarren lanean ari dira pentsatzen jadanik gasteiztarak. “Gutxi gorabehera zer izango den badakigu, baina ez du zertan lehenengoaren ildotik joan behar. Ateak erabat zabalik ditugu. Oraingoan Mikel Salasek guretzat propio idatzi du musika, musika zoragarria benetan, baina hurrengoan agian kantautoreen musika erabiliko dugu, edo txontxongiloak sartu... Gauza bakarra daukagu argi: ez direla aintzinako dantzak izango, hortik aurrera...”

Hortik aurrera, edozer gauza. Eta adi! Oraindik noiz ez badakite ere, beste ekitaldi bat eskainiko du Berdantzakik Udaren programazioaren barruan.

Leire Lopez de Aberasturi



Gasteizko Paperdenda Berria



- ⇒ 500 m²-ko paperdenda.
- ⇒ Ikasmateriala
- ⇒ Opariak eta ofimatika
- ⇒ Ordenadoretan azken nobedadeak eta gainera enpresetarako eguneroko zerbitzua

San Anton Plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12 / 01002 Gasteiz

Ramon Arenal:

“Haurrek heziketa artistikoa, jaso beharko lukete”

r

amón Arenal eta Josu Carballeda izan dira urtarrilean banatu ziren ‘Blas Arratibel’ Eskulangintza Lehiaketako sarien irabazleak. Lehenengoak eskulangintza tradizionalari dagokion saria eskuratu du ‘Fantasías halógenas’ keramika-obrarekin. Bigarrenak, Arabako artisauei zuzenduriko golardoa bereganatu du tornuan landutako pago zurez egindako aulkitxo bati esker.



RAMON ARENAL Burgosko Medina de Pomar herrian jaio zen orain 29 urte, baina azkenengo zortzi urteak Gasteizen eman ditu. Keramika afizio izateaz gain ofizio ere izatea nahi zuenez Gasteizko ‘Arte eta Lanbide Eskola’ra joan zen. Gaur egun, hiru urte daramatza bere kabuz lanean konpartiturik daukan tailerrean, herriren batean etxe-tailer bat izatearekin amesten duen bitartean.

Artisautzatik bizi nahi lukeen arren,

Ramón Arenalek beste ogibideren baten beharra dauka bizirauteko. Xede honekin, keramika irakasten iharduten du Luis Eljalde eskolan 7-8 urteko haurrei. “Nire ustez, oso garrantzitsua da haurrak artearen bidez hezitzea, artearekiko jakinmina piztea, haxe beren formazioaren beste arlo bat baita. Baina, egia esan, ez da halakorik gertatzen. Gurasoek, orokorrean, erabateko itxikeria erakusten dute haurrak beste arlo hauetan hezitzearen aurrean, eta beren seme-alabak klase hauetara



MIKEL
DELIKA

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ



Portal
del Rey 9

GASTEIZ



e
g
u
n
e
k
o
m
e
n
u
a

ekartzen dituztenek ere, maiz, ordubete haurrik gabe egotea besterik ez dute nahi, ez dute inolako interesik azaltzen”.

Biziraupenerako beste bide bat han-
hemenka burutzen diren artisautza azokak dira. Azken Gabonetako azokan egon da bere lanak saltzen eta salmentak gaizki joan ez arren, kexu dago artisauak ez diren konpetentzia desleialagatik. “Zenbaitetan tontoarena egiten ari naizela iruditzen zait. Gabonetako azokan artisau baino saltzaile gehiago dago”.

Buztinari lan egiten utzi

Arte Ederren hezkuntza politika alde batera utziz, Ramón buztingintzaz mintzatzen da maitekiro. “Zeregin baten aurrean aurkitzen naizenean, buztinari bere lana egiten uzten diot. Nik iradoki besterik ez dut egiten. Atseгина egiten zait lan prozesua obran agerian gelditzea”. Honen ildotik, Ramón Arenalen lanetan bere hatzen arrastoak edota egosketaren eragina ikus daitezke.

‘Blas Arratibel’ saria irabazi duen ‘Fantasías halógenas’ obrak prozesu bera jarraitu du. “Lan hau mugimenduz hornituriko hiru kono dira. Mugimendua da, berez, islatu nahi nuena. Ez neukan egin nahi nuenaren irudi finko bat, obra egin ahala zehazten joan zen”.

Edu Lopez de Luzuriaga

Josu Carballada, tornuko zurgin autodidakta

JOSU CARBALLED Donostiarra hamalau urterekin etorri zen Gasteiza eta, dagoeneko, hogeitaz eman ditu bertan. Kimika ikasi eta gero, metalgintzan bost urtez egin zuen lan. Bere aitak zurgintza-
ren munduan sartzen lagundu zion baina, gehienbat, bere kabuz ikasi du, zortzi urtetan tornuan espezialista bilakatu den arte. Orain bi urte, zurgindegi bat ireki zuen lagun batekin batera eta, hauek ere, herrixka batean etxe-tailer bat noiz lortuko zain.

Beste askok ez bezala, Josu Carballadak artisautza du ogibide bakarra. Iñaki Burzako Gasteiztarrarekin batera ‘Biraka’ aroztegia zuzentzen du eta, aspaldiko partez, honek bizitzeko ematen die. “Hasieran nahiko larri ibili ginen gastu ugari genituen eta. Oraindik ere zaila da zurgintzatik bizitzea baina, jadanik, jendeak ezagutzen gaitu eta behin etorri izanez gero errepikatzen dute”.

Enkarguak hartzeaz gain, Josu eta Iñaki azokaz azoka ibiltzen dira Euskal Herrian barrena beren enpresa ezagutarazteko, beren tornugintza estilo originala zabaltzeko. Zeregin honetan, Plaza Berriko Gabonetako azokan egon dira aurrean ere eta, Ramón Arenalek berak bezala, arti-



sauak ez diren saltzaileen arazoa azpimarratu dute. “Badago hainbat jende Asia aldera edo beste nonbaitera abiatzen direnak guk egiten ditugun produktu berdina erosteko eta gero guri ezinezkoak zaizkigun prezio merketan saltzen dituzte. Hau ez da bidezkoa”.

Nola edo hala, Josu eta Iñakik egonkortasuna lortu dute beren lanean eta baikor agertzen dira etorkizunaren aurrean. “Egia esan, zurgintzak aukera asko eskaintzen du”.

Asko Gustatzeko. Gutxi Gastatzeko.

MULTIOPTICAS BERRIA
bonardi '96
MULTIOPTICAS BERRIA

2.850
P T A



Hona hemen MultiOpticasen Bonardi bilduma eskuliboa adin guztietara, gustu guztietara eta aurrekontu guztietara egokitzen diren ereduak. MultiOpticasen bermearekin 450 saltokitan. Eta prezio ezinhobean. Gastatu gabe gustagarri izateko.

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza Olagibel 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

mostrongotxoak:

Noe-ren etxe ikusgarria

gure mostrongotxoek arazo bat daukate. Etxean pilotarekin jolasten ari direla, bapatean nahigabe, bolatxoarekin gurasoak buruan jotzen dituzte. Hau desastre galanta!

Buruko kolpearen ondorioz, ordea, erdi zorabiatuak geratu eta gurasoek, umeei gura duten animalia etxean edukitzen lagatzen dietela esaten dute.



Mostrongotxo aberezale hauek nolako animalia exotiko eta tropikalekin hornituko lukete etxea? Etxe haundiago batetara aldatu beharrean izango ote dira animaliekin batera bizitzeko?

Hona hemen Ikas-Bidea ikastolako umeen erantzunak. Hara zer nolako fauna ekarri diguten: tukana, txakurrak, pinguinoa, tximinuak...

OILO ETA OILAR bat erosiko nituzke. Animalia hauek arraultzak jartzen dituzte eta arraultza frijituak asko gustatzen zaizkit. Honez gain, elefante bat ere sartuko nuke etxean. Nik kirol asko egiten dut eta dutxa hondatuko balitzait elefantea etxe aurreko iturrira eraman eta tronpa urez betetzeko aginduko nioke. Ondoren elefantea etxera igo eta berak dutxatuko ninduke. Horrela ez nuke katarrorik harrapatuko. Lehoi bat ere lagungarria izango litzateke. Inork erasotuko banindu lehoiak lagunduko ninduke eta

erasotzaileak galtzontziloetan kaka eginda ihes egingo luke.

Iñigo, 10 urte

BI TXIMU ileluzedun nahi ditut orraztea asko gustatzen zaidalako. Etxean jaten duguna emango nieke jateko.

Aintzane, 10 urte

BI ORNITORRINKO, koala bat, hartz zuria, lau bulldog eta bi orka sartuko nituzke etxean. Ornitorrinkoa zergatik? Desagertzeko zorian dagoelako eta azkenengoa nirekin egotea gustatuko litzaidakelako. Eta beste

animaliak? Askok gustatzen zaizkidalako.

Eneko, 10 urte

ESKAILERADUN jirafa bat nahi dut bere eskaileratik igo eta lepotik txirrist egiteko. Elefante bat ere gura dut amak errieta egiten didanean bere tronpan izkutatzeke. Hogei erle ere ezinbestekoak lirateke, gelan nagoela borrokaren batean sartuta egongo banintz, euri deituko nieke nire aurkakoari ipurdian koxk egiteko.

Ainhua, 10 urte



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33



HOGEI LORITO eta bi tximu ekarriko nituzke. Loritoei kantak erakutsiko nizkieke eta horrela tximuak dantzan jarriko nituzke. Nire orkestaren izena **TXIMULORO** izango litzateke. Rock and rolla erakutsiko nieke oso martxosoak diren tximino hauei. Komunean entsaiatuko genuke loritoek kaka lasai egin zezaten. Tximu emeari minigona more bat jarriko nioke eta arrari fraka beltzak eta ile puntako orrazkera.

Ilazki, 10 urte

6.000 LORITO eta 50.000.000 tximu etxeratuko nituzke. Nire etxeak horrela zoo baten itxura izango luke. Etxea dibertigarria eta bildurgarria bihurtzeko berrogei kokodrilo eta zazpi foka ere erosiko nituzke.

Iker, 10 urte

NIRE IRITZIAN

komenigarria izango litzateke etxean guakamayo bat, albatros bat, bisonte amerikar bat, bi hartz, hamar hipopotamo eta tukan bat edukitzea. Beraiekin jolasteaz gain, bere bizimodua aztertuko nuke.

Josean, 10 urte

TXAKUR kantari, lehoi txirulari, tximu gorri, zaldi ikertzaile eta suge zigortzaile bat edukitzea gustatuko litzaidake.

Uxue, 10 urte

LAU ABERE biziko lirateke nire etxean: errinozerontea, tse-tse eulia, txingurri hartza eta pinguino bat. Pinguinoak oso farregarriak dira baita eleganteak ere. Emaztegaia bisitatzerakoan pinguino baidaliko nuke.

Ander, 10 urte



NIRE SUKALDEAN bost oilo egongo lirateke. Horrela sukaldea garbitzen lan gutxiago izango genuke, gu jaten ari garela mahai azpira eroritako ogi apurrak jango litzukete eta.

Leire, 10 urte

LORITO BAT edukiko nuke. Hitz itsusiak entzuterakoan, horrelakorik ez esateko agindua ematen erakutsiko nioke. Gauzak horrela, nire aitak kotxea gidatzerakoan lorittoa parean jarriko nioke eta azkenean hitz zatarrak esateari utziko lioke.

Ander, 10 urte

Lorea Zurimendi

Umeak zaintzen ditugu

GAUEZ

GOIZEZ

Beatriz 22 61 18
Nekane 26 91 53
Eduardo 14 21 99
Leire 27 32 81
Lorena 27 10 13
Ainara 23 38 28
Naiara 24 04 42

Esther 27 84 57

Idoia 24 47 79

Lorena 27 10 13

Montse 26 78 12

Ainara 23 38 28

Txaro 28 08 85

Arrate 25 64 01 (ostegun eta ostiraletan)



ASTEBURU AN

Olatz 25 61 20

Montse 26 78 12

Arrate 25 64 01

Elena 14 37 28

Leire 23 12 23

Jose Angel 27 62 41

Saida 26 58 05

Idoia 24 47 79

Belen 13 65 10

Monica 13 86 40

Itziar 13 86 21

Maria Jesus 13 54 35



KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 **20600 EIBAR**



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Nandus:

Amerikak egin dituen abenturazalea



Orain dela 8 urte Hegoamerikan egon zinen eta orain berriz han izan zara, aldaketarik nabaritu duzu?

Bai, aurreko bidaia 87-88an izan zen eta aldaketak arlo guztietan somatzen dira, baita jendearengan ere. Aldaketa hauek batzutan onerako eta beste batzuetan txarrerako izan direla uste dut.

Zein izan dira 20 hilabete hauetan pasa dituzun momenturik onenak eta txarrenak?

Askok izan dira, baina zaila da bat edo beste nabarmentzea. Esaterako azken egu-

nak oso politak izan ziren, "Carretera Austral" delako horretan oso gustora ibili nintzen, nahiz eta errepidea ez zen batere ona. Ekuadorren ere, Quiton, aurreko bidaian ezagutu nuen jendea berriro ikus-tea hunkigarria izan zen. Eta une txarrak? Ez dakit, lapurketak edo. Costa Rican eta Txileko iparraldean jasandako bi lapurketak eragina izan zuten nire moralean.

Denbora luze horretan izan duzu hemen-gor berririk?

Euskal Herriko berriak banituen, espero nietuenak baino gutxiago halere. Nik,

Orain dela 3 urte, 1993ko Ekaineko alean Nandusek egingo zuen bidaia luzearen berri eman genizuen aldizkari honetan. Dagoeneko Gasteizen da berriro Amerika osoa zeharkatzen hogeit hilabete igaro ondoren. Denbora horretan, 17.000 kilometro egin ditu bizikletaz, Alaskatik Tierra de Fuegoaraino, hain zuzen ere, gehienetan bakar-bakarrik. Berarekin izan gara bidaia honi buruz mintzatzeko eta hona hemen Nandusek kontatutakoa.

aldiz, dexente idatzi dut, guztira 300 eskutiz inguru. Kontuak eginez gero, batez beste ia bi eskutiz eguneko idatzi nituen. Niri, ordea, gutxiagotan iristen zitzaizkidan hemengo berriak. Zenbait gutun, gainera, esan didatenez, enbajadetan eta galduta ibiliko dira.

Hainbeste denbora etxetik kanpo eta egunero leku batetik bestera ibiliz, ez al da denbora-espazio nozioa galtzen?

Bai, zenbaitetan erabat galduta nengoen, zein egunetan bizi nintzen ere jakin gabe. Baina ez nuen arazorik.

Zerk bultzatu zintuen horrelako bidaia egitera?

Ez zen momentuko gauza izan. Aurreko bidaia bukatu nuenetik, buruan nerabilen ideia hori. Noiz ez nekien baino ziur nintzen egingo nuela. Zergatik? Hemengo bizimodua ezagutzen dut eta batzutan gus-tora nago eta bestetan ez. Gure bizimoduaren alde onak aprobetxatzen saiatzen naiz eta bidaietan ikusi eta ikasitakoarekin hemengo gauza txarrak baztertzen saiatzen naiz.

Herri eta estatu asko igaro dituzu, zein izan da ikusgarriena edo hunkigarriena?

Leku bat bestea baino hobe dela esatea ez da erraza, denak edo gehienak oso politak izan dira eta. Iparraldekoak, adibidez, Alaska, Kanada, Kalifornia... oso, oso

**GASTEIZKO
HERRIKO
TABERNAK**



OLARIZU
Jose Uruñuela
Tfnoka: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak

ERDIALDEA
Ramiro Maestu 6
23 31 92
Eguneko menua

ALDE ZAHARRA
S. Fco Xabier
Kantoia
Tfnoka: 28 33 05
Poteo eta giro ona

politik dira. Gero Mexikon sartu eta beste mundu bat da, Ertamerikan ere beste giro bat dago. Hegoamerikan sartzean, berriz, Andeak hasten dira, mendi horiek ikaragarriak dira. Dena dela, Txileko hegoaldea eta, batez ere, Austral errepidea nabarmenduko nituzke.

Ohitura desberdinak dituzten hainbeste herri igarotzean nabaritu al duzu aldetarik zure barruan?

Lehenengo aldaketa gogorra Kaliforniatik Mexikora igaro ginenean nabaritu genuen. Sekulako aldaketa da, bai gizarte aldetik, bai jende aldetik ere. Hortik aurrera, ordea, ez dago hainbesteko aldetarik. Hizkuntza bakarra da gutxi gora-behera, eta giroa ere antzekoa da nahiz eta desberdintasunak egon. Esan bezala hizkuntzak laguntzen du, ez baitaukazu arazorik jendearekin hitzegiteko. Dena den, desberdintasunak ere nabariak dira: herri batzuetan besteetan baino pobrezia edo miseria haundiago dago. Jendeak ere, nahiz eta denak antzekotasunak izan, ez dizu leku guztietan harrera berdina egiten. Aldaketa horiek guztiak nabaritzen dira eta norberari ere eragiten diote.

Nola moldatu zara hizkuntza aldetik?

Arazoak izan nituen hasieran, ingeleraz ez dakit eta. Gero ingelesez hitzegiten zuen lagun batekin ibili nintzen egun bat-

zutan eta errazagoa zen. Hala ere, Alaskan eta Kanadan oso jende gutxi bizi da eta denak sakabanaturik daude, beraz, askotan arazoa jendea topatzea zen. Berriro ere, bakarrik gelditu nintzenean, lehenbailehen Vancouver-era joatea erabaki nuen, hura hiri haundia delako eta latinoak ere badirelako. Han Madrilgo lagun baten zain egon eta gero berarekin arazorik gabe zeharkatu nituen Washington, Oregon eta Kalifornia.

Bidaian espero zenuena aurkitu duzu?

Bai, gutxi gora-behera. Kontua da lehen-dik ere asko ezagutzen nuela eta, egia esan, ez naiz leku konkretu baten bila ibili. Instintoari jarraituz ibili naiz.

Pentsatuta zenuen bidea asko aldatu behar izan duzu?

Asko ez baina aldaketak izan dira, hasieran batez ere. Hasierako asmoa Kanada barrualdera sartzea zen, hango Parke Naturalak eta ikusteko, baina hizkuntz arazoaren ondorioz asmoz aldatu nuen.

David Alvez

Hogei hilabeteko abentura

“Usurbilgo mutil batekin atera nintzen 1994ko Apirilaren 8an Londresera, eta handik hegazkinez Alaskaraino joan ginen. Han lau egun igaro genituen. Apirilaren 12an elurra gogor ari zuen eta 22an hasi ginen bizikletaz ibiltzen. Hilabete pasa ondoren lagunak hona bueltatzea erabaki zuen eta bakarrik gelditu nintzen.

Orduan, Whitehorsetik Vancouverera abiatu nintzen eta han bi hilabete eman nituen Madrilgo lagun baten zain, bidaia berarekin jarraitzeko asmoz. Bitarte horretan, lanean aritu nintzen diru pixka bat irabaztearren. Lagunarekin batera, Washington Estatua zeharkatuz, Seattlera heldu ginen. Gero, Oregonen barrena, Californiara iritsi ginen.

Handik Mexikora joan ginen, Tijuana hain zuzen, eta Kalifornia beheara peninsula osoa igaro genuen La Paz hiriburura iritsi arte. Han ferry bat hartu genuen eta Masatlanera iritsi ginen. Hiru egunez atsedean piskat hartzen egon ondoren, Mexiko barrualderantz abiatu ginen, Guadalajara, Huajaka, eta Mexikoko hiriburutik pasatuz. Gabon jaiak hiriburuan bertan igaro genituen eta

handik Chiapas aldera abiatu ginen. Dena den, mendialdean istiluak zeudela entzun genuen telebistan eta kostaldetik jarraitzea erabaki genuen Guatemala aldera.

Guatemalatik El Salvadorera, eta itsasontziz hango arrantzaletatzarekin Nikaraguara sartu ginen. Nikaraguan hilabete eskas egin ondoren, Costa Ricara abiatu ginen. Herrialde honetan lagunak arazoak izan zituen bizikletarekin eta berria erosi behar izan zuen. Banantzea eta bakoitzak bere bidea jarraitzea erabaki genuen. Kolonbiatik bukareraraino bakarrik ibili nintzen. San Josetik Bogotara hegazkinez pasa behar izan nuen, ez baitago bizikletaz pasatzerik eta gainera ez neukan berriro Panama zeharkatzeko gogorik ere. Kolonbian, berriz, mendian gora eta mendian behera ibili nintzen, Andeak bi aldiz zeharkatuz. Ekuadorera iritsita, denbora dextente eman nuen, hiriburuan; hilabete t'erdi egon nintzen hitzaldiak eman eta artikuloak idazten. Handik Perura joan nintzen eta basamortua zeharkatu ondoren Txilen sartu nintzen. Santiagon hamabost egun inguru egon nintzen itzulerako prestaketak egiten Tierra de Fuegoz abiatu aurretik”.



GARNICA 

Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Iturbe anaiak: “NBA ametsa da baina bertan jokatzeari da gure helburua”

“Ameriketara joan nintzen, zentimorik gabe...” dio abestiak eta horixe egin dute Gasteizko Iturbe anaiak. Iker eta Antxonek amets amerikarra dute helburu, NBA n jokatzeari alegia. Estatu Batuetan ari dira ikasten eta egunen batean amets hori egia bihurtu liteke. Baina, NBA n jokatzeari lortuko ez balute, ordea, guk etxean pozez gainezka hartuko genituzke.



Geu Gasteiz: Noiztik zaudete Estatu Batuetan?

Iker Iturbe: Ni orain dela lau urte joan nintzen. Ikastolan nagusiekin jokatzeari nuen saskibaloian eta ACBko taldeak deika hasi zitzaizkidan. Gure aitari, ordea, ez zitzaion hori gustatzen eta horren ondorioz, saskibaloia eta ikasketak batera egin ahal izateko Estatu Batuetara bidali ninduen. Esperientzia polita izan zenez, unibertsitatean sartu nintzen.

Antxon Iturbe: Nire aurreneko bidaia aurtengoa izan da. Anaiak bidea egin zidan eta dena errazagoa gertatu zait. Hala ere, High School-en tontoarena eginez gero, jai daukazu: zuzen-zuzenean kalera zoaz.

Adina, altuera, neurriak... nolakoak?

I.I.: 19 urte, bi metroko altuera eta 115 kilogramo. Oinetako zenbakia: 53a.

A.I.: Neurri ezberdinak ditugu. Oinetakoetan 50a behar dut, 105 kilogramo pisatzen ditut eta bi metro eta zentimetro bateko luzera dut. 16 urte dauzkat.

Iker Iturbe:

Gure kantxan 13.000 lagun sartzen dira



ANBOTO

TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA

Kutxillera, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

AMILAMIA
arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

TXVSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

Datu horiei so eginez, Ramon Rivas-en trazarik bai?

I.I.: Ez, ez. Ramon Rivas lodiagoa da. Gure soina zuntza besterik ez da.

Eta zer moduz Unibertsitate Ligan?

I.I.: Iaz ondo. Estatistikei begiratzuz zenbaki onak neuzkan. Hala ere, aurtan ez dut jokatu lesionaturik nagoelako. Giharreek odolaren zirkulazioa oztopatzen zidaten eta ebakuntza egin behar izan didate. Nire anaiari gauza bera gertatuko zaio. Espero dut hemendik aurrera jokatu ahal izatea.

Espainiako selekzioan ere ibilia zara...

I.I.: Bai, azken urteetan hautatzaileak deitzen nau. Selekzioako hasierako bostekoak Estatu batuetan jokatzen dugu. Gainera, Europa eta Mundu txapelketatan beti lehenengo hiruen artean sartu dugu burua.

Hori guztia ez al da lan gehiegi zu bezalako gazte batentzat?

I.I.: Agian beste batentzat bai, baina niretzat ez. Saskibaloian ona eta bizitzan hobia izan nahi baduzu, gogor lan egin behar duzu, bestela akabo. Horrez gainera, unibertsitateko arauak ere gogorrak dira. Esaterako, ez dago jokatzetik ikasgaiak gaintitzen ez badituzu.

Antxon Iturbe:

“Amerikarrek ez dakite jaten”

Anaiak zarete, baina kantxan antzarik baduzue?

A.I.: Ez, nik barrutik jokatzen dut eta Ikerrek jaurtiketa hobia dauka. Bestalde, gure aitak dioen bezala, nik zerbait lortzeko anaiak baino hiru aldiz gehiago egin behar dut lan. Hori guztia Iker alferragoa izan arren. A! Eta ni ere selekzioan aritua naiz, Europako txapelketan bigarrenak izan ginen.

NBA ametsa al da?

I.I.: Ez dakit iritsiko naizen. Oraindik urruti ikusten dut hori. Ahal izanez gero jokatu dut eta bestela Baskoniarekin jokatzea gustatuko litzaidake. Hemengoak naiz eta Baskonia zalea... Orain, dena den, ikasketak bukatu nahi ditut. Gero

gerokoak.

Ameriketako bizimoduak, konpetentziak... heldutasuna ekarri dizue?

I.I.: Egia da taldekoen arteko konpetentzia izugarria dela. Hemen ez da hori gertatzen. Desberdintasunak begi bistan daude: High School eta ikastola, kalean saskibaloia kantxak, egun osoa ematen dute jokatzen... Hemen, ordea, zailagoa da aurrera egitea, futbola baita kirol nagusia.

Zerk harritu zaituzte gehien EEBBetan?

I.I.: Saskibaloia inguruan egiten den ikuskizun erraldoia harrigarria da: “Cheers Leaders”ak, musika, taldeen aurkezpenak, himnoa... Gure kantxan, adibidez, 13.000 lagun sartzen dira.

Askotan etortzen zarete etxera?

I.I.: Ez, udan eta egun bakan batzuk bakarrik. Ahal izanez gero, Gasteizko jaietan etortzen gara. Lesioa dela eta, aurtan Gabonetan ere etorri gara.

Eta jateko orduan zer moduz moldatzen zarete?

A.I.: Oso-oso gaizki. Han bizimodua askoz azkarragoa da eta egunero gauza bera ematen dute orain; sandwicha, alegia. Urdaia gaztarekin eta gazta urdaiarekin. Ez arrainik, ez haragirik; ezer ere ez. Ez dakite jaten.

Hango euskaldunen berririk?

I.I.: Nire etxetik hurbil bizi diren euskaldunak deitzen didate. Han distantziak minututan neurtzen dira. Nire bizilekutik 45 minutura euskaldun bat bizi da.

Ondo pasatzeko astirik ere izango duzue?

A.I.: Bai, bai! High School-en jaialdiak egiten ditugu eta gurasoren batzuek aldegitan dutenean, lagunak gonbidatu eta etxeetan jaiak egiten ditugu. Han gainera gehiago ligatzen da neskak ausartagoak direlako. Eta neska kontutan bi motakoak daude: barbyak eta lodi-lodiak.

Amerikarrek badute euskaldunon berririk?

I.I.: Hemengo arazoa azaltzen saiatzen naiz, baina alferrik. Ez dira ulertzeko gai. Beste batzutan, “basque” garela esan eta berehala botatzen dute: <<Adi hauekin lehergailuak jartzen dituztenak dira eta>>. Gehienek indarkeriaren berri badute.

Zuen oheak arazorik sortzen dizute?

A.I.: Ez, ez dago inolako arazorik. Ikerri Suitzatik ekarri zioten ohea, alabaina nik betikoarekin jarraitzen dut. A! Geu Gasteiz aldizkaria Estatu Batuetan jasotzen dugu. Beraz, ikusi arte.

Ismael Diaz de Mendibil



restaurante • jantoki

DOS HERMANAS

1887an sortua • Jose Ramon Agiriano
madre Vedruna, 10
Tfnoa 13 29 34 • 13 44 46

★ jo ta ke

TXAPELARRI
TABERNA

kutxilleria 83

AZAROAREN 29AN ELEFANTE BLANCO ARETOAN EGON ZIREN

LOS ESPECIALISTAS

Kritika onak, jende gutxi

ETA EZ DUGU ULERTZEN. Inola ere ez.

Los Especialistas taldekoak ez ditugu jaioberriak musika munduan. Sei urte igaro dira taldea sortu zenetik, eta dagoeneko hiru diska daramatzate beraien sorbaldetan. Ezagunak? Bai. Abesti ospetsurik? Baita. Diska onik? Orain arte grabatu dituzten guztiak. Eta zuzenekoak? Ederrak.

Berriro diot, ez dugu ulertzen.

Abenduaren 27an bigarren aldiz bisitatu gintuen Zaragozako hirukoteak "Mundo Mundial" izeneko bere bigarren lana aurkezteko asmoz. Eta aurkeztu ziguten, jakina. Baina, zoritxarrez, ehun lagun besterik ez ginen izan Elefante Blanco aretoan bildu ginenok.

Giro hotza gure hirian aurkitu zutena aragoiarrek. Kontzertua hasi, lokala berotzeari ekin, baina entzuleok oraindik eskenatokira hurbildu gabe.

Ez ziren zimurtu, eta entsaio bat izango balitz bezala, abesti onak, alaiak eta erakargarriak eskaintzen jarraitu zuten. Eta halako batean polik-poliki jendea musikariengana hurbiltzen hasi zen: bat dantzan hasi, gero beste bat eta beste bat, eta azkenean denok dantzan. Agerraldia nola hasi zen ikusi ondoren, ez zen batera erraza pentsatzea emanaldia festa moduan bukatuko zenik.

"Cúbrela", "Wenda", "Rebotando", "Monegros" eta "Vapor". Ez zuten ezer ahaztu. Espero genituen abesti guztiak entzun ahal izan genituen, eta hurrengoan beraiekin gozatzeko zenbait aitzakia eskuratu. Zeintzuk? Honako hauek.

Rock berezia

Ez dute modan dauden tokietara begiratzten, Ekuadorrera baizik.

Los Especialistasekoek Rock Mestizua jotzen dute. Pop abestiak dira beraienak

baina ez Londresen egiten denaren modura. Los Especialistasena berezia da: runba, merenge edota funk erritmoe-kin tindatutako rock mugikorra. Dant- zatzekoa, ez ordea patxangakoa.

Beraien Latin Amerikarekiko zaletasuna ez da topikoena, ez eta tekila, koko eta hondartza zuriarena ere. Badakite kanpo-ko kulturak errespetatzen.

Los Especialistasek abestiak sortzearen artea menperatzen dute. Gordeta dauka- te oraindik estraineko diskoaren fresko- tasuna, bigarrenaren hunkipena, eta hori guztia erabili dute hirugarren lan hel- duago hau gauzatzeko. Apainketa zehat- zak eta dibertigarriak, erritmo erakarga- rriak, amudun estribiloak. Zer gehiago?.

Los Especialistas taldeak bihotzez idat- ziriko pasadizoak kontatzen dizkigute. Bertso zintzoak, humanitatez beteak. Hedonismoari abesten diote, baita samurtasunari, baikortasunari, eta gogo- ari ere.

Ironia eta sentsualitatea maitasun handiz erabiltzen dituzte.

Eta gainera, kantariak ondo abesten du (gaur egun, pop-rock arloan, horrelako- rik topatzea benetan zaila da) eta musi- kariak benetako musikajoleak ditugu. Teknika, erritmoa, eta sentimendua ha- tzamarretan.



Agur

IXILA.

Horrelakoa

gertatu da Julio

Kageta

boskotearen

agurra, hainbeste

talde euskaldunen

modukoa.

BIDEAN BI maketa, hiru diska (lehen- dabizikoa beste hiru talderekin elkarlane- an egindakoa) eta kontzertu sorta on bat laga dizkigute. Arrazoiak? Taldekideak elkarrekin jarraitzeko zailtasunak: lana, merkatu urria eta bizitza bera.

Oraindik belarrietan dugu lehenengo urteetan eskaini ziguten punk-rock gordi- na, kajoian sartuta "Hambre eta Piojos" 87eko maketa (Banko de Esperma talde ermutarraren ondoan) eta ezpainetan beraien irribarre laguna.

Tabernaz taberna, plazarik plaza, make- taz maketa, Euskal Herriko rock and rolle- an merezi zuten lekua bereganatu zuten. Oinarriak sendo jarrita, diskoaren graba- ziorantz saltoa egiteko prest zeuden. 91ean kaleratu zuten estraineko lana: "Bihar eta Berandu". Rock and rolla genuen gehienbat oparitu zigutena, hala ere, diskoan ikus zitekeen taldeak ez zuela horretan gelditu nahi. Eta Julio Kagetaren garapen nabarmenaren lekukotzat aipa daiteke 1993ean argitaratutako "Mestizu" diskoa.

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro
ezinhobe

Kutxileria 23

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



★
IZ
TABERNA
RA
JATETXEA

Julio Kageta; aixo Dantzut Albisteak

Julio Kagetari ez zitzaion kalitaterik falta, ezta abesti onik ere, baina bai jarratzaile gehiago.

1994.etik aurrera taldearen argia amata-tuz joan zen pixkanaka-pixkanaka. Lehenengo, Asier baxujoleak utzi zuen taldea, gero Gorka abeslariak eta azkenik Patxi kitarrajoleak. Ondorioz Julio Kagetaren karreraren amaiera gauzatu zen. Gero arte.

Gero arte Julio Kagetari, bai, baina ez taldekide guztiei. Badirudi Ikerrek eta Juan-mik ez dituztela musikatresnak zintzilikatu nahi eta gogo handiz bigarren saioari ekingo diotela. Talde berria (Dantzut) eta abesti freskoak prest. ZORTE ON!

Txabi Arnal Gil



❑ "Gor ezazu zure burua" izeneko diska jadanik kalean. 1991. urtetik hona GOR disketeak argitaratuko disken lan bilduma. Bikoitza gainera. Parte hartu dutenak: MCD, Julio Kageta, Flitter, Balerdi Balerdi, Trikitixa Kontrairo Taldea, 7 Eskale, Urtz eta Exkixu.

❑ Exkixuren bigarren lana, "Gaua Heldu Orduko", Durangoko Liburu eta Diska Azokan salduena. Zorionak.

❑ Laster Beer Moshen laugarren lana kalean eta udaberrian Urtz taldearen hirugarrena. Adi egon!

❑ Ameriketara hainbat talde euskalduneri harrera ona eskeini eta gero, MCD eta Parabellumen txanda dator. Ondo ibili!

❑ Urtarrilaren Sean Natxo Etxebarrieta "Cicatriz" hil zen. Rock latza, bizitza gogorra. Goraintziak Pepin, Pedro eta Pakitori.



arimo ederrak
aire zabalean

la calle

taberna

Dultzaina, 10

GASTEIZ

PIPERMINA

DENDA

arropa
eta
osagarriak

beherapenak



KUTXI, 81

ONCE
FOTRI
I

xurru



KUTXI 103
GASTEIZ

Geure txaloa..

MAC DONALD'S etxeak

Gasteizen ireki berri duen jantokiak bezero euskaldunak erakartzeko zerbitzu bitxi bat eskaintzeko asmoa du. Zure urtebetetzea ospatzeko bertara joaten bazara, euskaraz kasu egingo dizun zerbitzaria izango duzu horrela nahi izanez gero.



Gasteizko McDonald's-en ireki dela eta burutuko diren ekintzeak		
ABENDUAK 8	18:00 orduak	Castralako irakurketa. Gela eta opor-eremuak dituen erakundeak.
ABENDUAK 9	18:00 orduak	Sorokako Zukoaren, Zure gela eta erakundeak.
ABENDUAK 10	12:00 orduak	Ustezkoak aniztasun eta parte hartze mugatuko pertsonaia erakundeak dituen erakundeak.
ABENDUAK 11	18:00 orduak	Zer eginen duen gela eta erakundeak.
ABENDUAK 12	18:00 orduak	Ustezkoak aniztasun eta parte hartze mugatuko pertsonaia erakundeak dituen erakundeak.
ABENDUAK 13	18:00 orduak	Ustezkoak aniztasun eta parte hartze mugatuko pertsonaia erakundeak dituen erakundeak.

...eta Geure kaskarrekoa

BADIRUDI zenbait erakundek oraindik ez dutela euskararen legea ezagutzen eta Lanpostu Institutoa (INEM) dugu horietariko bat. Euskaraz ez omen du balio Langabezia saria kobratzeko garaian. Gure hizkuntz eskubideak hain arinki zapalduak ikustea salagarria da.



Hemendik aurrera atal honetan euskararen alde egiten dena txalotzeko eta euskararen kontra egiten dena salatzeke aukera izango duzu zeuk ere 22 21 53 telefonora deituz edota gure helbidera idatziz: Pedro Asua, 2-3.a

Gure historiaren



GURE HISTORIAREN

istorioak bertso-saioan zozketagai izan genituen Sarasua anaien "Fauna txiki bat bertso berritan" izeneko bi kaseten irabazleak honako hauek dira:

- Juan Cruz Altuna
- Jon Basabe

Beraz, irabazleok badakizue kasete bana egokitu zaizuela. Saria jasotzeko Herrikoia liburutundara jo eta bertan eskuratuko duzue.



sogotzi

ZERBITZU OFIZIALA ARABAN

Anglo Vasco kalea, 3
Tfnoa: (945) 27 13 33 - Fax: (945) 27 15 99
01002 GASTEIZ

Electrolux

ZANUSSI

De Dietrich

Corberó

soberana

teka

LIEBHERR

LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

Denbo rapASa

istorioak

Bien bitartean, Karistio, Bardulo eta Ponpeiarrek ezagutu genituen; inkisidoreen, sorginen eta Servet teologo tuterarraren berri izan genuen; Nicolas Landuchio Italiako bidaiari ospetsuak eta Juan Bautista Gamiz idazleak euskararen alde Araban egindakoa erakutsi ziguten; Martxoaren 3ko gertakizunak, Fragaren kontuak eta beste haibat bitxikeria ere entzun genituen. Dударик gabe, gure historia zertxobait gehiago ezagutu eta ikasteko aukera izan genuen, beti ere, bertsolarien umore eta giro onarekin. Ai gure eskola garaian historiaki klaseak horrela izan balira!



	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	A	I	Z	U		E	B	A	K	I
2	T	R	E	B	I	N	O		A	A
3	L	A	R	I		E	T	E	U	
4	A	K	I		E		A	R	T	O
5	S	A	K	E	L	A		A	O	N
6		T	U	R		L	O	T	I	A
7	O	S	S	A		A	R	U		R
8	I		I	T	O		A		A	T
9	O	K	A	Z	T	A	T	U		U
10	U	I		E	E		U	M		A

2. Erakuts. Atzikia. 3. Erlazioa. 4. Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea. Eratu aditzaren ekintza eta ondorio. 5. Iodoa. [Ald.] Atzikia. Zuhazkia txiki arantzaduna. 6. Letra izena. Konjuntzioa. Leheña. 7. Jaurtiki. Uhin. 8. Leheña. Antolatu, sortu. [Ald.] Behiak egiten du. 9. Ertz, bazter. Leheña. Oxigenoa. 10. Kasik. Onetsia, ontzat emana



1. Afrikako iparraldeko mendiak. Arabako herri bat.



geugasteiz
aldizkaria

hilabetero
6.000
etxetan

TXAPELA jatetxetik: Mikel eta Arantzarekin hizketan



GAURKO BISITAK

gasteiztarrok ondo ezagutzen dugun leku bateraino eraman gaitu, Txapela jatetxetara, hain zuzen. Becerro Bengoa kalean aurkituko duzu jatetxe jator eta txukun hau. Leku ezin hobean kokatuta dago, Gasteiz hiri barneko zein kanpoaldeko autobusak gelditzen diren tokian. Toki egokia zalantzarik gabe. Mikel eta Arantza gazteak dira jatetxe honetako nagusiak eta beraiekin aritu gara solasean,

Noiz sortu zen Txapela jatetxea?

Egia esan oso zaila egiten zaigu hori zehaztea. Guk urte t'erdi daramagu

AGENDA • OTSAILA • AGENDA • OTSAILA • AGENDA • OTSAILA • AGENDA

GEUrekin mendira

AITZGORRI

Otsailaren 25an

IRTEERA: goizeko bederatziak eta laudenetan, Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean. Gure kotxeak erabiliko ditugu.

ITZULERA: lauretan

IBILBIDEA: Urkilan (Zalduondoko sondeo plataforma) kotxeak utziko ditugu, eta handik oinez goraino.

ADI: Eguna eta ordua bere horretan mantendu direla segurtatzeko, aurreko astean ondorengo telefonora dei dezakezu:

22 21 53

Ez ahaztu hamarretakoa



Otsailak 19
arratsaldeko 7,30etan Luis
de Ajuria aretoan

HITZALDIA

Gotzon Garate
AUTODETERMINAZIORUNTZ
plataformaren aurkezpena

**Gasteizko Alde Zaharrean zehar
ibilbidea**

LEKUA: Landatxo Gizarte Etxean

EGUNA: otsailaren 21ean

ORDUA: 9 t'erdietan

izena emateko

otsailaren 7tik 15era

DOHAINIK



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest

• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkaturia - Zaldiaran • GASTEIZ

bertan, baina jatetxeak 60 urte inguru ditu. Lehen Bar Correo zena orain Txapela Jatetxea bada ere, hemengo jendeak ondo ezagutzen gaitu hiriko zaharrenetarikoa baita.

Zein motatako sukaldaritza egiten duzue zuek?

Guk, batez ere, sukaldaritza tradizionala lantzen dugu, ikutu berri batzurekin batera. Sukaldariok beti zer edo zer berria asmatzea atsegin dugu: saltsaren bat edo... sukaldari guztiei gustatzen zaigulako norberaren ikutu berezia ematea gure janariei. Dena den guk ditugun berezitasunen artean legatza euskal erara eta makailua pil- pilean nabarmenduko nituzke.

Zer aldatu duzue jatetxean zuek sartu zinetenetik?

Egia esan ez dugu aldaketa haundirik egin sukaldaritza arloan, baina saiatu gara beste motatako bezeroak erakartzen guregana. Jatetxe honek garesti fama zuen eta gu hori aldatzen saiatu gara. Gaur egun, egindako ahaleginari esker, esan dezakegu ez dela jantoki garestia, beste edozein jatetxetako salneurriekin alderatuta

behintzat.

Orain dela gutxi gure hirian McDonalds bat ireki dute. Zer iritzi duzue horrelako jantokiei buruz?

Niretzat atzera pausu bat da. Alde batetik ez dakizu zer jaten ari zaren, ez baitakizu zerez egina dagoen. Erabat desberdina litzateke harategi batera joan eta bertako haragiarekin egindako hamburgesa etxean jatea. Bestetik, nire ustez, hori ez da jateko modua.

Neguan bete-beteen sartuta gaude. Bezeroek plater bat edo bestea aukeratzeraoan eguraldiak badu eraginik?

Bai dudarik gabe. Hona datorren jendeak plater astunagoak eskatzen ditu sasoi honetan, babarrunak eta baratxuri zopa esaterako.

Ligatzeko asmoz datorrenari zer gomendatuko zenioke?

Nire ustez ligatzeko norberak gustokoa duena eskatu behar du. Ni neuk honako menua eskatuko nuke: San Jakobo bat txanpinoiekin, "haragijale" amorrutua naizelako, eta edateko ardoa.



Zein da zuk probatu duzun platerik arraroena?

Tomate zopa ginebrearekin, dudarik gabe. Malagan dastatu nuen kurioisitatez saltsa hori eta ez zuen ez ginebrearen ez eta tomatearen zaporerik ere. Nik, bederen, ezin nituen bereiztu.

Aurten ere guri ez zaigu loteriarik tokatu; ez Gabonetakoa, ezta Errege bezperako Niñoarena ere. Baina, hala ere, oraingoan afaritxo bat egingo dugu aldizkariko lankide batzuri esker. Hau miraria! Mila esker zuzendari.

Karlos Fdz de Betoño

AGENDA • OTSAILA • AGENDA • OTSAILA • AGENDA • OTSAILA • AGENDA



**1996.EKO
URTARRILA
ETA OTSAILA**

4. NOIZBEHINKARIA

OTSAILAK 1 9,00ETAN Nor gorrotatzen duzu? Ekarri hona eta gure MAGUAK desagertaraziko du OTSAILAK 8 8,30ETAN "EGA" ikasleei zuzendua Zalantzak al dituzu? sinonimoak, idazlanak, berridazketak, itzulpenak... EGari buruzko mahainguruak	OTSAILAK 15 7,00etan "Akelarre" filmea Jose Maria Satrustegiren eskutik sorginkeria munduan murgilduko gara OTSAILAK 22 9,00ETAN Inauteriak direla eta... "nolako mozolo, halako mozerro" Antzerki taldea OTSAILAK 29 9,00ETAN ikasi, ikasi, ikasi, ikasi, ikasi
---	---

IKASTAROAK

- **MALABARE IKASTAROA**
Otsailaren 6an hasiko da asteartero 8,00etan Bagaren
- **TXISTU IKASTAROA**
Otsailaren 2an hasiko da ostiralero 8,30etan Bagaren

IRTEERAK



ihauterietan ere euskaraz!

asteartean, otsailaren 20an

ADI EGON !!

GAUEKO 8,30ETAN,

Gasteizko alde zaharrean eta zentroaldean zehar euskararen aldeko antzerkitxoa eta bertsoak entzuteko aukera paregabea. Bi taldeen arteko burruka. Alde batetik: euskararen zapaltzaileak, inkisidoreak, borrarroak, politikoak, epaileak,... eta beste aldetik euskaldunak, Arabako eta Euskal Herri osoko pertsonaia mitologikoak eta abar luze bat. Ez gelditu dudatan, aukeratu zure pertsonaia eta etorri gurekin!

Euskaldunon elkargunea

Informazio gehiago nahi izanez gero deitu ondorengo telefonora
25 10 84



AIZU, MUSIKA DERRA!
GU'TOKOA DUSA? BA BOTA TXANPON BAT...
DIRURIK EZ DAUKAT, BAINO OTARTEKOA BAI. ERDIA NAHI DUAZU?
BAI, E'KE-RRIK A'KO

ETA ZU?... OSO URRUREKOA ZARA?
AFRIKAR'A NAIS, ES DA NABARITZEN?

NAM, NAH, NIR-HERRIAN FOLKLORE-SALE O'PETSUA NAIS

A, BAI? BA ZATOZ NIR-EKIN. GURE OHITURA BAT ERAKUTSIKO DIZUT
ONGI, HEMEN JENDENA, ES B'E

GAIZKIULERTUA

ZORION ETXE HONTAKO DENDI OLES EGITERA GATOZ...

...LEKU BATZUTAN BEZELA...

AAAARG!! BERRIZ EZ!!
AGA DEU NAREN BEZERA...

DIRURIK AT E OHITURA ZAHARRAZ AURTEN BERRITZE
TXURI GUTIAK BERDIRAK ZA'E. HAU TRAPA IZAN DA. SKIN TALDE UNIFORMATUTAKOEK BERE MAKILEKIN EZ DIOATE JIPOITUKO BERRIZ...
E, LAGU, ADRA ZAZ?

GIZAJOA, HAU GAIZKIULERTUA. HONELAKORIK EZ GERTATZEKO ZER-BAIT EGIN BEHAR KO. ZUTEN...

EZ GAUDE OSO ABERATS DIRUZ, ETA...

GAINERA AGATE DEUNA SIZILIARRA ZEN... ETA?

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA
PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA




Florida Azoka 2 eta 3 ☎ 13 24 48
Abastos Azoka 2 eta 3 ☎ 26 78 97
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak** *aukerarik zabalena
kalitaterik onena*




kide
APAINDURA
Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA PERTSONAL SAILA IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20	16 13 60 16 16 53
BULEGO TEKNIKOAK	ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA ERROLDA ETA SOLDADUTZA BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 11 87 16 11 06 16 16 68 16 11 33 16 11 20	16 11 88
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 89	16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88	
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70	
HEZKUNTZA SAILA (IME)		Fray Zacarias	16 12 16	
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ABETXUKO ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa María kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g	16 17 40 16 16 82 16 17 60 24 47 14 13 36 91	
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK-KULTURA BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61	
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			13 36 91	

